

Eusko Ikaskuntzaren IX-garren Kongresua

Deia, 1983-09-05.

Urriaren 23-29a ospatuko du Eusko-Ikaskuntzak bere IXgarren Kongresua Bilbon.

Garrantzi handia izango duen IXgarren honek badu aurrekorik; ez bakarrik beste zortzi; *1918koa da egiazko lehenengoa*, baina oinarriko honek aurretik beste horiek izan zituen joan den mendetik hasita aintzidari gisa:

Baionan eratu zen Luis Luziano Bonaparte-ren zuzendaritzapean *1857an*, lehenengoa; hasiera-hasierako kongresua, *1897an* "Sociedad de Etnografía"ren babesean bestea eratu zen Donibane Lohitzunen, "Fiestas Internacionales de la Tradición Vasque" izenarekin. *1901ean*, Parisen, irailaren 1-5 bitartean izan zen "Congreso Internacional de Estudios Vascos", Frantziako iriburuan eratu zen "Exposition Universelle" sonatuaren babesean eta hau ospatu zen Jauregiko "E" aretoan. *1901-1902garrengo* Neguan ospatzen da Kongresua Hendaian. *1906an*, Donostian eta Arturo Campion-en biltzarrea. *1911an*, Biarritz-Baionako Kongresua.

Horiek dira *1918koaren* aurretikoak.

Oñatin 1918garrengo irailak 1-7an eraturakoa izan zen oinarritzakoa, hemen sortu baitzen *instituzioa: Eusko Ikaskuntza* (Sociedad de Estudios Vascos) Ego Euskalerrriko lau Diputazioak eta Euskadi osoko gotzaiak (*Gazteizkoa* –Araba, Bizkaia, eta Gipuzkoa barruan zirela, *Iruñekoa* eta *Baionakoa*– Ipar-Euskalherria barruan zuela) eratu zuten Patronatuko Batzarrak babestua izan zelako; orduan Errege zen Alfonso XIIIgarrenak beraren etorrerak eta honek esandako hitzak lege-indarrez oinarritu zuelako; Kongresua honetatik beste gauzen artean Euskadi osorako *Euskaltzaindia* hemen finkatu zelako.

Gauza asko dira, benetan, hemen, Campion ohorezko lehendakari zela lortu zirenak.

Eta finkatu esan dut "Euskaltzaindia", honen oinarriak jarriak baitzeuden dagoeneko: Bizkaiako Diputazioak, eta Ramón de la Sota Aburto jaunaren lehendakaritzapean, urte berean erabaki zuen beste hiru diputazioekin batera Euskaltzaindia sortu eta horien diruz eustea: Honela egindako proiektua Oinatiko Kongresura bidaltzea erabaki zen, honek estudia zezan eta erakundeaz ardura zedin.

Hau izan zen Eusko-Ikaskuntzaren lehenengo bilera, sorrerakoa; gero eratu ziren: 2na *Iruñean* 1920an; 3na *Gernika* 1922an; 4na *Gazteizen* 1936garrengo irailean ospatzekoa zen, baina gerrak eragotsi zuen, eta 1948an Biarritzen eratu zen, Manu de la Sotaren eraginez, 8na *Baionan* 1954ean.